Irungo euskarazko hamabostekaria

Irunero 429

Irailak 15, 2022

2 Irun atzo, Irun gaur
3 Berri laburrak
4-5 Bide-gurutzea
6 Noelia Lorenzo
7 Caser Residencial
8 Kirolak: Leka Enea
9 Kirolak: Neskak errugbian
10 Oiassotik Irunera
11 Haurren lanak / Denbora-pasak
12 Gazteen lanak
13 Beti gazte: Ikasturte hasiera
14 iGazte
15 Agenda

Neskek ere errugbira jokatu nahi dute Irunen

Masaje on bat merezi duzu!

Aral Quiromasaje

- Kiromasajea
- Kirol masajea
- Erreflexologia podala
- Bentosak
- Drainatze linfatikoak

www.aralquiromasaje.com - Larretxipi kalea, 17 IRUN - 643 26 92 76

ZER GERTATU ZEN IRUNEN ORAIN DELA 100 URTE?

24983

53127

57862

"El Bidasoa" aldizkariak orain del 100 urte Irunen albiste ziren gertaerak islatzen ditu. 1922ko irailaren 24an argitaratutako aldizkariaren hasieran eskerrak ematen dira aurreko aldizkari batean egindako salaketari jaramon egin eta udalak kinka larri bat garaiz konpondu izanagatik. Titok Lanaldiko Ministroak Irunera egindako bisitaren nondik norakoak kontatzen ditu, txipiroiak jan zituela eta guzti. E.R. kolaboratzaileak aurreko ostegunean Irunen Kordobako legionario taldeak eskainitako kontzertuaz hitz egiten du. "Puntadas" izenpean jokalari euskaldunak etxerako bidean daudela azaltzen da, Ameriketako txapelketa galdu ondoren. Jarraian, Gipuzkoako Arkitektoen Eskolatik igorritako zuzenketa argitaratzen da, Irungo Kirol Zelaiaren eraikuntzaz arduratzekoa zen Angel Angoso irundarrak arkitekto titulurik ez duela argitzeko. "Eztropada" olerkian, berriz, estropadetan traineruen arteko lehia nolakoa den azaltzen da.

"Miscelánea Deportiva" atalak, berriz, momentuko kirol gaurkotasuna errepasatzen du. Bertan, Donostiako estropaden emaitzak aipatzeaz gain, Pasaiako traineruaren deskalifikazioaren azalpena eta futbolarekin lotutako azken albisteak biltzen dira. Ondoren, udal arkitektoaren deskarguaren arrazoiak azaltzen dira, egiteko dauden konponketa lanen zerrendarekin batera. "Notas Municipales" atalak azken udal bilkurako erabakiak biltzen ditu. Orrialde amaieran Irungo pilota partiduetako arautegi berrituaren berri ematen da.

Hirugarren orrialdearen hasieran Saenz eta Oraá senar-emazteen ezkontza jakinarazten da, era askotariko xehetasunak emanez. "Por ahí" atalean Idealok hainbat berri labur argitaratzen ditu eta hainbat gai aipatzen dira bertan: alokairuko etxe batzuen baldintza txarrak, Kirol Zelaiaren kokapena eta txirrindularitza pista bat sortzeko beharra. Guillermo Martínez maisua aldizkariaren aurreko zenbakiko idatzi batean oinarritzen da hiriko irakasleek haur eta gazteen heziketan ahal bezain beste egiten dutela azaltzeko. Aldizkaria, "Noticias" izeneko berri laburren atalarekin amaitzen da.

Argazkiak:

24983: Hondarribiko trainerua, Kontxako Banderaren txapelduna. Bigarren planoan herriko alde zaharra (1948).

53127: Esportaziorako upelak, Urdanibia plazan utzitakoak (1917).

57862: Egungo Genaro Echeandia plazaren eremua, erdian prentsa saltzeko kiosko bat, eskuinean azoka zaharra eta Alhondiga eta, ezkerrean, Echeandia etxea eta Fermin Calbetón kalea 1910. urtea baino lehen.

IRUNERO

Erredakzioa eta maketazioa:
Ainara Berges
erredakzioa@irunero.eus
irunero@irunero.eus

Administrazioa:
Joseba Arozena

Zuzenketa:
Aitor Lete

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

Publizitatea:
Amaia Terrazas
Ion Otxoa
Joseba Arozena
(jarozena@irunero.eus)

Diseinua eraberritzea:
Andrea Gomez Arocena

Inprenta:
ZEROA MULTIMEDIA S.A.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua:

Argitaratzailea:
837 comunicación y publicidad S.L.
www.837comunicacion.com

ISSN: 1134-0606

Lege gordailua: SS-230-94

Tel: 943042052

Webgunea: irunero.eus

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

2022ko udan antolatutako ekintzek esperotako arrakasta izan dute

Irungo Udalak uztaileko eta abuztuko hiriko baliabide turistiko nagusiei buruzko lehen datuak jaso ditu. Oiasso erromatar museoa eta Dies Oiassonis jaialdia erakargarri funtsezkoenetako bat izan dira.

Oiasso museoak uztailean eta abuztuan 10.768 bisitari eta erabiltzaile jaso ditu. 2021eko datuekin alderatuta bisitarien kopuruan igoera % 60koa izan da. Museoaren emaitzak % 8 baino gehiago hobetu dira erromatar jaialdiaren datuak kontuan hartu gabe ere. Nabarmentzekoa da bisitari gehiago etorri direla museoaren erakusketak bisitatzera, bai erakusketa iraunkorra, bai aldi baterakoak ere.

Dies Oiassonis erromatar jaialdiaren itzulerak jende ugari erakarri du antolatutako jardueretara. Gutxi gorabehera 4.000 lagunek hartu zuten parte uztailaren 14tik 17ra bitartean antolatutako jardueretan. Egun horietako bero olatuak ez zuen jaialdiaren XII. edizioaz gozatzea ekidin.

Irunen nortasuna

Irugurutzetako bisita gidatuek, Santa Elenako nekropoliko bisitek eta tailer didaktikoek 1.124 bisitari eta erabiltzaile erakarri dituzte guztira. Kontzertuek eta bestelako ekitaldi kulturalek 694 pertsona erakarri dituzte uztail-abuztuetan. Azken horien artean, Santa Elena egunaren ospakizunen arloko jarduera tradizionalak nabarmendu behar dira, abuztuan. Euria gogoz egin zuen arren, abuztuaren 18ko ate irekien egunean 123 bisitari izan genituen, eta abuztuaren 20an beste 283 pertsonak bisitatu zuten ermita, San Juan-Alde Zaharreko auzo elkartean antolatutako ekitaldietan.

Frantziatik etorritako bisitari eta erabiltzaileen kopurua hirukoiztu egin da aurreko urtearekin alderatuta, eta estatu barruko turistekin batera museoko bisitarien % 39 dira. Azken horien artean, Madrildik, Kataluniatik eta Andaluziatik datoz gehienak.

Irunen udan egin daitezkeen planak jasotzen ziren, beste datu batzuen artean: bisiten ordutegia, Oiasso Museoko eskaintza eta bisita gidatuak, eta abar. Eskuorri

horiek turismo bulegoetan banatu dira, eta informazioa eskuragarri egon da turismoari buruzko webguneetan eta sare sozialetan ere.

Irun plan ona da

Irungo hotelek udan izandako okupazio datuak bisitari kopuru handi horren isla dira. Uztailean hiriko hotelen okupazioa % 94koa izan da eta abuztuan, berriz, % 97koa. Horrela, 2019ko datuak, murrizketarik gabeko azken udako datuak, hobetzea lortu da: 2019ko uztailean eta abuztuan okupazioa % 90ekoa izan zen.

Irungo Udalak Partaidetza Bidezko Aurrekontuen zortzigarren edizioa jarri du martxan

Herritarren Parte Hartzerako ordezkari Mónica Martínezek jakinarazi duenez, dagoeneko abian da partaidetza bidezko aurrekontuen 2022ko prozesua. Zortzigarren edizioa da aurtengoa, eta, berriro ere, udal aurrekontuko 1.500.000,00 euro herritarrentzat erreserbatuko dira.

Aurrekontua bi zatitan banatuko da. Batetik, 1.300.000 euroren erabilera prozesu jeneralistaren bidez erabakiko da, Irunen erroldatutako 16 urtetik gorakoen artean. Bestetik, 200.000 euroren erabilera gazte prozesuaren bidez erabakiko da, 16 urtetik 30 urtera bitartekoen artean. Herritarren Parte Hartzeko ordezkaria den Mónica Martínezen esanetan, "ekimen hau funtsezkoa da Irungo Udalak herritarren parte hartzearekin duen konpromisoaren barruan, eta herritarren eskutik jarraitu nahi dugu, eta haien proposamen, iradokizun eta ideiak bildu, hiria hobetzen segitzeko".

Proposamenen bilketa

Hiru bide daude parte hartzeko eta proposamenak helarazteko, alegia, online proposamenak egin ditzakete, aurrez aurreko saioetan parte hartu eta proposamenak partaidetza karpetan ere aurkeztu daitezke. Herritarrek udal webgunearen bidez egin ahalko dituzte proposamenak, www.irun.org helbidean irailaren 16tik hilaren 17ra. Aurkezten diren proposamen guztietatik zortzi aukeratuko dira urriaren 13tik 17ra.

Bestetik, aurrez aurreko bi bilera egingo dira, eta, bakoitzean, hiru proposamen aukeratuko dira, guztira sei, azken bozketan sartzeko. Lehena irailaren 15ean egingo da Palmera-Montero guneko 2. aretoan eta bigarrena irailaren 26an izango da Luis Marianoko zentro sozialean.

Azkenik, irailaren 16tik 24ra bitartean, hiriko zortzi lekutan emango da prozesuaren berri, jende asko ibiltzen den toki eta orduetan. Biltzen diren proposamen guztietatik bost aukeratuko dira, atariko online bozketa baten bitartez, eta aukeraturik gertatzen diren bost proiektuak azken bozketan sartuko dira, 2023ko aurrekontu orokorretan sartzen ote diren ikusteko. Informazio puntu horiek zehazki zeintzuk izango diren jakiteko udal webgunea kontsultatu behar da.

Herritarrek aipatutako hiru bideetatik parte har dezakete; alegia, online proposamenak egin ditzakete, aurrez aurreko saioetan parte hartu eta proposamenak partaidetza karpetan aurkeztu, dena batera.

Guztira, azken bozketan sartzeko hemeretzi proiektu aukeratuko dira hiru bideetatik, eta, gainera, Oiaso 2000 Irungo Auzo Elkarteen Federazioak beste bat aurkeztuko du, hiri osorako, Irungo auzo elkarte guztiekin adostutakoa; horrela, guztira, hogei proposamen sartuko dira finalean. Bakoitzaren bideragarritasun tekniko eta ekonomikoa aztertu, eta zerrenda bat lehenetsiko da. Udal webgunean argitaratuko da zerrenda, eta, bozketa bidez, herritarrek hura osatzen duten proposamenen artean aukeratu beharko dute zein sartuko diren Irungo 2023ko aurrekontu orokorraren barruan. Proposamen finalistak urriaren 20tik urriaren 26ra bozkatuko dira.

Aurten berritasun gisa internet bidez eta karpetan aurkezten diren proposamenak aukeratzeko atariko bi bozketak batera egingo dira, iaz askoz ere boto gehiago eman baitziren Internet bidez aurkeztutako proposamenak aukeratzeko karpetan aurkeztutakoak aukeratzeko baino.

Gainera, gazte prozesua bereziki sustatuko da, eta online komunikazioa areago landuko da, gazteak egunerokoan gehien erabiltzen dituzten bideetatik erakartzeko.

20 URTE ANTXETA IRRATIA 90.5 / 89.7 FM

Olaizola INMOBILIARIA AGENTZIA
Salmenta-Alokairuak
Promozio berriak
Aholkularitza
Beraketa kalea, 17 • 20302 IRUN • Tel: 943 626585
info@inmobiliariaolaizola.com
www.inmobiliariaolaizola.com

Bidasoaren gainean hesiak eraitsiz, zubiak eraikiz

“Horrelako ekimenek erakusten dute oraindik ere jende ona geratzen dela munduan”

“Europar Batasunaren barnean mugarik ez dagoela esaten badute ere, kontrolak etengabeak dira”

Ibrahim Cherif Ba, mugaz gaindiko herritarra

Ibrahim Cherif Ba bere alabekin.

471 pertsona

14.830 joan etorri

1.660 km

Jakina da migrazioa oztopo eta iruzurrez betetako bidea dela. Behar duenari eskua luzatu ordez, zangotraba ipini ohi zaio askotan. Migratzaileak Iruneraino iritsi eta Frantziara igarotzeko pasa beharrekoak salatzeko performancea burutu du Imanol Espinazok. Abenida zubia izan da aukeratutako agertokia eta mugaren bi aldeetako bizilagunei esker bere buruari ezarritako erronka uste baino lehenago amaitu du. Proiektuan guztira 471 pertsonek parte hartu dute eta 14.830 joan-etorri egin dituzte, 1.660 kilometro.

Imanol Espinazo artistak sare sozialen bitartez zabaldu zuen Abenida zubian egitekoa zen proiektua eta horretan parte hartzeko gonbidapena. Proiektuaren aurkezpenerako prestatutako argitalpenean azaldu zuenez, “Hendaiako gainontzeko biztanleak bezala, muga zeharkatzen saiatzen direnek pairatzen dituzten ondorioen eguneroko lekuko naiz”. Muga inguruan bizi den egoera salatzeko helburuarekin abuztuaren 28an, igandean, bere performancea hasi zuen, hesiz itxitako oinezkoen zubian.

“Tragedia hau ikusirik, ibiltzea erabaki dut”. Horrela azaldu zuen Imanol Espinazok bere ideia sare sozialen bitartez. Guztira, 1.099 dira Irun eta Melillako hesia banatzen dituzten kilometroak. Artistak erabateko isiltasunean distantzia hori Bidasoa gaineko zubitik atera gabe egitea erabaki zuen. Abenida zubiak 112 metroko luzera du, beraz, 9.812 joan-etorri egitea beharrezkoa da Irun eta Melilla arteko distantzia berdintzeko.

Zubiaren albo batetik bestera ibiltzeko gutxi gora behera minutu bat behar dela azaldu du artistak Instagramen. Kalkuluak egin ostean, Imanol Espinazok azaldu zuen, “batez beste, egunean 6tik 8 ordura ibiliz, 7 egunetan gutxi gorabehera 3.360 joan-etorri egin ahal izango nituzke”. Horregatik, eskualdeko bisitariei laguntza eskatzea erabaki zuen performancea proiektu parte-hartzaile bat bihurtuz. “Horregatik nire bidaian parte hartzera gonbidatzen zaituztet” esaldiaren bitartez proiektuan parte hartzeko aukera herritar orori zabaldu zien Espinazok.

Lehenengo egunean 422 joan-etorri egin zituen Imanolek, guztira 4.058 joan-etorri egin zirelarik. Bigarren egunaren bukaeran Imanolek 520 joan-etorri egin zituen, zubira gerturatu ziren gainontzeko pertsonen artean 4.205 egin zirelarik. Horrela, bigarren egunerako 925 kilometro ibiliak ziren. Beraz, hirugarren egunaren hasieran 1.549 joan-etorri egitea falta zen bakarrik, beraz, erronka egun bereko arratsaldeko 19:00etan amaituko zela iragarri zen.

Proposamenak jasotako erantzuna ezin hobea izan zen, aurreikusitako 7 egunak erabili gabe, erronka 3 egunetan beteta baitzegoen. Izan ere, hirugarren egunaren amaieran Imanol Espinazok 470 joan-etorri eginak zituen hiru egunen baturan eta gainontzeko parte-hartzaileek 6.080 egin zituzten. Guztira, 14.813 izan dira egitasmoaren barnean egindako joan-etorriak, hau da, 1.660 kilometro, Melillako hesia luze igarotzeraino.

Itxiera batetik bestera

Abenida zubia 2021eko urtarrilean itxi zen, terrorismoaren aurkako borroka indartzeko aitzakiarekin. Ordutik, zubiaren Hendaiako muturrean hesi batek oinezkoen bidea mozten du. Aurretik hiru urtez zubia itxita egon zen eraberritze lanak egiteko eta 2020ko abuztuaren 28an ireki zen. Eraberritze lan horiek 2,2 milioi euroko inbertsioa suposatu zuten eta Irungo Udala, Europako funtsen laguntzarekin, arduratu zen proiektua aurrera eramateaz. Herritarrez gain, José Antonio Santano Irungo alkateak zubia berriro eraikitzeko hainbat eskaera egin ditu, azkena uztailaren 12an Eric Spitz Pirinio Atlantikoetako prefetari zubiaren irekiera eskatuz.

Abenida zubiaren itxieraz gain, gainontzeko igarobideak kontrolpean mantentzeko Frantziako Poliziak egunean 24 orduz kontrolak egiten ditu Irun eta Hendaia arteko beste zubietan. Autobidean, Santiago Zubian eta Zubi Internazionalean kontrol poliziala etengabea da.

Eguneroko errealitatea

Ibrahim Cherif Ba igandean hasi zen Imanolekin batera Abenida zubiaren gainean joan-etorriak egiten. Bere gurasoak Saharaz hegoaldeko Afrikakoak zirela azaldu du, baina bera aspalditik Hendaian bizi dela adierazi du eta, ondorioz, Bidasoa ibaian gertatutako tragedien lekuko izan dela. “Europar Batasunaren barnean mugarik ez dagoela esaten badute ere, kontrolak etengabeak dira”, salatu du Ibrahimek. “Ez dugu ahaztu behar migratzaileak ez direla hona nahi dutelako etortzen, inori ez zaio gustatzen bere etxea uztea beste herrialde batera eskean joateko”, gaineratu du Hendaiako herritarrak.

Imanolen egitasmoaren arrakasta eta onberatasuna azpimarratu ditu Ibrahim Cherifek: “Horrelako ekimenek erakusten dute oraindik ere jende ona geratzen dela munduan”. Ibrahimek bere burua mugaz gaindiko pertsona bezala deskribatu du, mugaren bi aldeetan bizitza egiten duela azaltzeko. Egunero muga gutxienez lau aldiz gurutzatzen du eta bidaia bakoitzean bere azal kolorearengatik dokumentazioa erakutsi beharragatik nazkatuta agertu da. “Egunero erasotua sentitzen zarenean beti ez duzu modu egokian erantzuten, ez baita atsegina zure emazte edo alabekin batera mesfidantzez betetako begiradez inguratua bizitzea”, azaldu du Hendaiako biztanleak.

Migratzaile elkarteen babesa

Aintzane Lasarte Bidasoa Etorkinekin elkarteko kidea da eta azaldu du Imanol Espinazo artistak abiatutako egitasmora elkarte bezala atxikitzea erabaki dutela. “Bagenekien Imanolek hilabeteak zeramatzala zerbait egin nahian mugaren bi aldetan egunero ikusten dugun errealitatea modu artistikoan salatzeko,” adierazi du Aintzane Lasartek. Ibiltzen hasi aurreko bezperan jakinarazi zien Espinazok egunero mugan migratzaileei harrera egiten diharduten elkarteei bere asmoen berri.

Bidasoa Etorkinekin elkartetik performancearen balorazio positiboa egin dute. Aintzane Lasarteren hitzetan: “etorkinek bizi hobe bat izan ahal izateko egiten dutena oso modu finean erakusteko balio izan du”. Imanolentzat meditazio ariketa izan da, isiltasunean egindako joan-etorriek gogoetarako balio izan diote eta.

Horrela, azkenaldian zubiak lotune izateari utzi dio, oinarrizko eskubideentzako amildegi bilakatuz. “Bide-gurutzea” egitasmo sinboliko eta artistikoa izateaz gain, are gehiago da. Zirkulazio askerako eskubidea defendatu eta egunero mugan egiten diren kontrol arrazisten aurkako ekintza bat da. Ekintzak izandako parte hartzeak argi eta garbi utzi du egungo egoeraren zentzugabekeria, hesiak altxatu ordez, herritarrak zubiak irekitzearen alde daudelako.

Noelia Lorenzo, idazlea:

“Argitaratzen duzun nobela bakoitzarekin hazten zara”

Noelia Lorenzok bere lan berria argitaratu du. “Blanco inmaculado” izenburuarekin bere asmoa irakurle leialak eta iritsi berriak erakartzea da. Kasu horretan, ingurune sektario batean gertatutako hilketa baten egilea aurkitu beharko du Ertzaintzak. Nobela beltzaren zale diren irakurleak harrapatu nahi dituen istorio berri honen nondik norakoak azaldu ditu idazle irundarrak.

“Blanco Inmaculado” liburuaren argitalpenarekin nobela beltzari leial eusten diozu, ezta?
Bai, nobela berri honekin nire generora itzuli naiz, hau da, nobela beltz edo poliziakora. Eiderren eta Jon Anderren ordez, askok ezagutu zenituzten arren, oraingoan Lur eta Maddi dira protagonistak, Ertzaintzako ofizial bat eta patruilari bat. Hala ere, neure estiloari eusten diot, pertsonaien psikologian sakonduz eta pertsonaia sentikorrak sortzen saiatuz. Beste kasu batzuetan bezala, ez naiz gehiegi jostatzen odolean eta erraietan, pixka bat nire lerroan.

Erraza izan al da mundu sektarioan sartzea nobela hau sortzeko?
Zuen bulegotik gertu hemen inguruan bizi den komunitate bat duzue, eta haiek inspiratu ninduten. Duela 20 urte, motots bat zeraman mutil batek oktaba bat eman zidan, eta harrezkero beti izan dut jakinmina. Duela gutxi, haiek bizi diren baserritik pasatzean, pentsatu nuen zer gertatuko zen hain komunitate itxian zerbait gertatuko balitz? Ertzaintzak nola jardungo zuen? Horrela sortu zen ideia: sute baten ondoren suhiltzaileak iritsi dira eta 14 urteko neska baten hilotza aurkitu dute, sektako kide eta ahoa estalita saloiaren erdian. Nire kasuan, hemen bizi den komunitateak inspiratu ninduen, baina liburukoa erabat asmatutako komunitatea da. Denak zuriz doaz, hortik “Blanco inmaculado” izenburua, eta izen bereko arropa marka egiteaz bizi dira. Horrela asmatu ditut hierarkiak eta arau batzuk.

Istorioa Irundik gertu kokatzen da beste behin?
Olaberria eta Bentak auzoen artean dagoen baserri batean gertatu da kasua. Inguru horretan dagoen natura guztia inspirazio iturri izan dut kasua berriro Irunen kokatzeko. Irungo ertzain-etxea arduratzen da kasua kudeatzeaz. Hala ere, oso barneko eleberria da, bilbearen zati handi bat baserri horren barruan gertatzen baita. Agian aurreko argitalpenekin alderatuta hori du bereizgarri, baina hala ere ez naiz hemendik mugitzen.

Zergatik izan dira protagonistak bi emakume?
Aurrekoan neska eta mutil batek osatutako bikotea ziren, eta kasu honetan bi emakume izatea nahi nuen, idazleek ia ez baitituzte erabiltzen, Javier Sagastiberri eta Susana Hernandez kenduta. Ez dut beste adibiderik aurkitu, eta garrantzitsua iruditzen zait gai hori lantzea, emakume asko ari baitira lanean edozein arlotan. Kristalezko sabaiekin topo egiten badugu ere, rol bera betetzen dugu. Sektaren barruan dagoen hierarkiaz hitz egin nahi nuen, baina baita gure gizartean eta polizia kidegoetan dagoen hierarkiaz ere. Gainera, bi emakume sentikor izatea nahi nuen, elkarri etengabe laguntzea eta sororitate edo ahizpatasun bat sortzea. Sektako kideak oso hermetikoak dira, eta beren sentsibilitatea oso lagungarria da galdekatuen konfiantza bereganatzeko.

Nobelan jorratutako beste gai bat gaixotasunak dira, ezta?
Bai. Lur de las Heras, protagonista, bajan dago gaixotasun nahiko ezgaitzailea duelako. Zurrun dago eta ezin da diagnostikorik egin. Horretarako inspiratu naiz nire kasuan, nik gaixotasun hori baitaukat, eta nire errehabilitazioko doktoreak horretaz idaztera animatu ninduelako. Bajan egon arren, Lur oso sentibera eta enpatikoa da, eta komisariordeak krimenaren edo galdeketen eszenatokira eraman nahi du.

Nobela beltz honen erdian zure amonei omenaldi bat egiten diezu?
Horixe. Lur de las Herasek aitaren aldeko amonaren abizena du, eta Maddi Blascok amaren aldeko amonarena.

Nondik lortzen duzu hain istorio konplexuak sortzeko inspirazioa?
Ai ama, ez dakit irakurle batzuek gai honi buruz zer pentsatuko duten. Genero beltzeko irakurle amorratua naiz, eta ikusten ditudanak polizia serieak dira, genero honetaz inguratuta bizi naizelako. Egia da ez dudala albisteak ikusteko ohiturarik, egunero ematen diguten informazio guztia gehiegizkoa iruditzen zaidalako, baina “True crimes”, benetako krimenak, ikustea gustatzen zait, asko inspiratzen nauten krimenak. Haur-literatura ere idazten dut, dena orekatzeko. Uste dut inspirazioa hortik datorrela, genero beltza ikusi eta irakurtzetik, inguratzen gaituen gizartetik eta nire irudimenetik.

Generoan argitaratutako lehen liburua ez denez, errazagoa da merkatuan kokatzea?
Argitaratzen duzun nobela bakoitzarekin hazi egiten zara, nik horrela nabaritu dut. Irun inguruko irakurleekin hasi nintzen eta pixkanaka hazten joan naiz. Hau nire zazpigarren nobela da eta argitaletxekoek nire betiko irakurleak mantentzearen garrantzia azaldu didate, baina hazten jarraitzeko aukera galdu gabe. Oso garrantzitsua da bide beretik jarraitzea, argitalpen berri bakoitzak irakurle gehiago ezagutzeko eta jaialdi gehiagotara iristeko balio baitu.

Neur al daiteke nobela batek izango duen arrakasta argitaratu bezain laster duen harrerarengatik?
Kalean hain denbora gutxi daramanez, zaila da asmatzea. Oraingoz, iristen ari zaizkidan aipamen guztiak positiboak dira. Konturatzen ari naiz irakurle berri askoren aipamenak jasotzen ari naizela, eta horrek promozio garrantzitsu bat egiteko balio dit. Beldur handia nien nire irakurleei, ez bainekien nola onartuko zuten Eider eta Jon alde batera uztea. Nire antzinako irakurleei asko gustatzen zaie eta liburu guztien artean helduena dela diote. Irakurle berriek ere, nire luma idazkera ez ezagutzean, errespetu pixka bat ematen zidaten.

Eta etorkizunerako zerbait pentsatzen hasi zara?
Egia esan, Lurrekin eta Maddirekin loturik hiru istorio bururatu zaizkit dagoeneko. Hiru istorioak idazten hasi naiz, horietako zein gustatzen zaidan gehien ikusteko, eta bat aukeratu dut jada. 60 orrialde idatzi ditut, baina idazketa alde batera utzi dut liburu berriaren promozioan zentratzeko. Orain liburu berriak duen harrera ikusteko momentua da, protagonista berriek publikoa erakartzen duten edo ez ikusteko.

Caser Betharram Hondarribiko jaien ospakizunean murgildu da iraila hasieran

Pandemiak behartutako etenaldiaren ostean, Caser Residencialek Betharramen duen egoitzan Hondarribiko Jaiak ospatu ahal izan dituzte. Egoitza zuri, gorri eta beltzez jantzi da kostaldeko herriko jaiak ospatzeko. Apaingarriez gain, antolatutako ekintza eta tailer bereziei esker alardea bertatik bertara bizitzeko aukera izan dute.

Hondarribiko Jaiak ospatzeko ekintzez betetako egitarau zabala prestatu dute Betharrameko Caser Residencialen. Abuztuaren 22an hasi ziren egoitza apaintzeko eskulan tailer bereziekin eta irailaren 11ra arte antolatu dituzte jaiekin lotutako ekintzak. Ohiko jarduerez gain, alardearen irudiak zeuzkaten puzzleen txapelketa eta jaietako bingo berezia antolatu dituzte. Jaien aitzakia aprobetxatuz Hondarribira ateraldia egin dute egoiliarrek eta irailaren 2an Betharrameko egoitzan meza berezia egin zen.
Irailaren 3a jaietako egun berezienetako bat izan zen Betharrameko egoiliarrentzat Mendeluko konpainiaren bisita jaso baitzuten. Sara Prego izan da aurten Caser Residencial Betharramen aukeratutako kantinera egoiliarra eta egun horretan Mendeluko konpainiarekin eta bere kantinerarekin desfilatzeko aukera izan duena. Egoitzaren barnetik eta kanpotik desfilatu ostean, konpainiako kideek egoitzak prestatutako merendolaz gozatu zuten.

Hondarribiko Jaiak direla eta egoitzan antolatutako beste ekintza bat belaunaldien arteko tailerra izan da, non adinekoek eta senide txikienek elkarrekin gozatzeko aukera izan duten. Irailaren 7an jaietako bazkari berezia antolatu zuten eta egoitzaren kanpoaldean egin zuten, eguraldi ona aprobetxatuz. Irailaren 8an, jaien egun handian, alardearen emankizuna egin zen egoitzako egongelako eta kafetegiko telebistetan. Irailaren 10ean, berriz, Hondarribiko Udalak bertan erroldatutako pertsonentzat Ardora jatetxean antolatutako bazkarian parte hartu zuten Betharrameko egoiliarrek.

Pandemian egindako lanari errekonozimendua
Era berean, Caser Residencialek Hondarribiko Udalaren eskutik pandemian zehar bidelagun izandako elkarte, erakunde eta pertsona guztiei eskainitako omenaldian parte hartu zuen. Horrela, pandemian zehar egoitzako egoiliarrak zaintzeko eta babesteko egindako lana goraipatu du udalak.

Bi urteren ostean plazer bat izan da Betharrameko Caser Residencialeko egoiliarrentzat zein langileentzat jaiak berriro elkarrekin ospatu ahal izatea.

Leka-Enea klubak amaiera bikaina eman dio denboraldiari

Leka-Enea klubak denboraldi hasieran ezarritako helburuak luzez bete ditu denboraldi amaierara iritsitakoan. Azken bi urteetan zehar jokatutako partidu eta txapelketek mahai-tenis klubeko jokalariak maila nazionaletara eta internazionaletara eramateko aukera eman dute. Klubeko jokalari irundarrek Sonia Etxezarreta teknifikazio zentroan ikasitako guztia erakusteko aukera izan dute emaitza borobilak ekarri dituen denboraldian.

Sergio Rodríguez Leka-Eneako zuzendaritza Batzordeko kideak eta Ioana Tecla entrenatzaileak 2021-2022 denboraldiak emandakoa errepasatu dute. "Nire ustez, izan dugun denboraldi amaiera izan da azpimarragarriena", adierazi du Sergio Rodríguezek. Ekainean beti adinen araberako Espainiako Txapelketa jokatzen da. Bertan benjaminen, kimuen, haurren, Sub21 eta Sub23 kategorietako kirolariek parte hartzen dute. "Espainiako Txapelketan lortutako emaitzak itzelak izan dira, emaitza onen bat lortzea espero genuen, baina lorpenak asko izan dira". Esaterako, haurren kategorian lehiatu diren Iker Plazaz, Xabier Toqueroz eta Eneko Rodríguezek Espainiako Txapeldun titulua lortu dute. Iker Plazak gainera, brontzezko domina lortu du binakako kategorian. Bestetik, Aimar Chamorrok gazte kategorian, santandertar kirolari batekin batera, hirugarren postua lortu du binakako kategorian. "Urte askotan lortu dugu final-zortzirenetako edo final-laurdenetako kanporaketetara iristea, baina aurten, egia esan, jokalarien emaitzak benetan onak izan dira, klubaren historian Irungo hiru jokalarik Espainiako Txapelketa bat elkarrekin irabaztea inoiz lortu ez dutelakoan nago eta", gaineratu du Sergio Rodríguezek.

Ioana Tecla entrenatzaileak adierazi duenez, Espainiako Txapelketa irabaztea lortu duen hirukotea berak entrenatutako lehen kirolari taldeetako bat da eta orain artean denbora luzez egindako lana fruituak ematen hasi dela dirudi. "Txikitatik klub honetan trebatu diren mutilak dira, eta, azkenean, balio duten guztia erakutsi ahal izan dute", adierazi du talde irabazlearen entrenatzaileak. Ioana Teclak nabarmendu duenez emaitza azpimarragarri guztiak ez dira soilik maila nazionalekoak izan, Beñat García Espainiako selekzioarekin batera Europako Txapelketa jokatzeko aukeratua izan baita. Teclaren hitzetan, "orain arte bagenekien bide onetik gindoazela, baina ez genekien noiz hasiko ziren emaitza onak lortzen".

Urrezko hirukotea

Iker Plazak, Xabier Toquerok eta Eneko Rodríguezek Haurren Espainiako Txapelketan nagusitzea lortu zuten. Xabier Toquerok azaldu duenez, beraientzat ez da erraza izan txapeldun titulua lortzea. "Espainiako Txapelketan taldearen helburua podiumera iristea zen, baina azkenean txapeldunak izatea lortu genuen". Beraz, taldearentzat ez zen izan aurretik esperotako lorpen horietako bat, baina konturatzerako txanda batetik bestera igarotzea lortu zuten eta horrela lortu zuren urrezko domina lepotik zintzilikatzea.

Eneko Rodríguezek gaineratu du txapelketa irabazi ahal izateko taldekideen arteko babesa funtsezkoa izan dela, baita aulkian jokatzeko esperoan zeuden bitartean ere. "Elkarri aholkuak eman dizkiogu eta gauzak okertu arren, burua hotz mantentzea lortu dugu gainontzekoen babesari esker", azaldu du Rodríguez taldekideak. Gainera, txapeldun posturaino iristeko Enekok gogoratu du urte osoan zehar astero klubean egindako entrenamenduak oso baliagarriak izan direla.

Iker Plazak ere denboraldian zehar egindako lanaren emaitzak ikusi ditu Espainiako Txapelketan. "Ezinezkoa da horrelako titulu bat lortzea gogor eta era jarraitu batean lan egin gabe". Aurten hirukotea haurren kategorian lehiatuko da berriro eta, oraingoan bai, denboraldi on bat egin eta emaitza onenak lortzeko aukerekin hasiko dute erronka berri hau, aurreko urteak emandako esperientzia baliatuz. "Berriro taldeka Espainiako Txapelketa irabaztea eta banaka top nazionalean postu on batean kokatzea dira gure helburuak", azaldu du Xabier Toquerok.

Gazteen lehian

Aimar Chamorro irundarra kategoria gaztean lehiatu da aurten. "Aurten nire emaitza onena binakako txapelketan lortu dut, santandertar kide batekin hirugarren postua lortu baitugu", azaldu du Aimarrek. Binakako emaitza espero zuela azaldu du Aimarrek, bere taldekidearen maila ona eta elkarren arteko harreman onean oinarrituz. "Elkarrekin irabazle izateko aukerak ikusten nituen, baina azkenean ez da horrela izan, nahiz eta hirugarren postua ere oso ondo dagoen".

Hala ere, Aimar Chamorrok ez du taldean lehiatzeko aukerarik izan, ez baita gazte taldea osatzeko aukerarik egon. "Datorren urtean binakako emaitza berdintzea gustatuko litzaidake eta, horretaz gain, taldekako eta bakarkako txapelketan emaitza on bat lortzea", adierazi du Leka-Eneako jokalari gazteak.

Nazioarteko mailaraino ere

Beñat Garcíak, berriz, Irungo Leka-Enea klubaren izena nazioarteko mailaraino eramatea lortu du. Denboraldi hasieratik jokatutako txapelketetan lortutako emaitza onek nazioarteko mailaraino eraman dute jokalari irundarra. Ligan lortutako emaitza onez gain, Trials eta Top 8 txapelketetan bere onena erakutsi zuen eta horrela Espainiako Selekzioarekin batera Europako Txapelketan lehiatzeko aukera lortu zuen. "Europako Txapelketan parte hartzea amets bat izan da eta, zalantzarik gabe, orain arte kirolean izan dudan esperientziarik onena", azaldu du García jokalariak. Denboraldi hasieran bere helburu bakarra Espainiako Txapelketara iristea zen baina luzez gainditu du bere buruari ezarritako erronka. "Datorren urtean berriro Europako Txapelketara itzultzea gustatuko litzaidake eta hori ezinezkoa balitz, behintzat Espainiako Txapelketan maila onena erakutsi nahiko nuke", adierazi du Beñat Garcíak.

Ikusmira hastear den denboraldian

Denboraldi baten amaiera beti dago kirol-etapa berri baten hasierarekin lotuta. Ioana Teclak aurreratu du denboraldi berrian ere "ilusio berdinarekin" lan egiten jarraituko dutela. "Kategoria aldaketa batzuk izango badira ere, guk haurren eta gazteen kategorian lehiatzen jarraituko dugunez orain bai datorren urtean Espainiako Txapelketan benetan emaitza onak lortzeko aukerak izango ditugula, baita Europako Txapelketan ere". Sergio Rodríguez, berriz, klubaren etorkizunean zentratu da: "adin bereko jokalari asko dauzkagu eta Irungo teknifikazio zentroan jasotako eskolez gain, uste dut atzerrira egindako irteerak jokalarien trebakuntzarako oso onuragarriak izaten ari direla".

Txingudi Errugbi klubak nesken taldea sortu du hurrengo denboraldirako

Zaisa Txingudi kluba erronkez betetako denboraldia prestatzen ari da. Klubak harrobia eta Touch sekzioa sendotzeaz eta seniorren gizonezkoen taldea euskal lehen mailara itzularazteaz gain, emakumezkoen senior taldea aurrera ateratzeko erronka onartu du. Horrela, Irunen emakumeei etenik eta oztoporik gabe errugbian aritzeko aukera eskaini nahi die klubak.

Txingudi Errugbi klubak uztailean iragarri zuen epe ertainean emakumezkoen talde bat sortzeko nahia. Roberto García "Pachi" klubeko zuzendari teknikoa da emakume taldea sortzeko proiektuaren buruzagietako bat. Emakume talde hori sortu ahal izateko plan bat prestatu da eta planaren oinarriko helburua hauxe da: klubeko 14 eta 16 urtez azpiko kategorietan ahalik eta neska gehien biltzea, horiek prestatu eta etorkizunean osatu nahi den talde seniorraren muina bihur daitezen.

Entrenamenduak martxan

Entrenamenduak irailaren 13an hasi ziren eta astero errepikatuko den hitzordua asteartetan izango da, arratsaldeko 17:30etatik aurrera. Txingudi Errugbi klubak emakumeen talde berrira batzeko gonbidapena egin die, klubean dagoeneko jokatzen duten neskez gain, errugbia probatzera hurbildu nahi duten 14 urtez azpiko neska guztiei. Entrenamenduak Plaiaundiko instalazioetan egingo dira.

Gaur egun, hamar dira Zaisa Txingudiko taldeetan diharduten emakumezkoak. Elene Tristán eta Aitana Garrido Txingudi Errugbi klubeko bi jokalari dira eta datorren denboraldian sortu berri den emakumeentzako talde berriarekin batera entrenatuko dira. Oraingoz, bi neska horietaz gain, Maiderrek, Lupek eta Gretak osatzen dute talde berria. Talde txikia handitzeko asmoz entrenamendu irekiak antolatuko dira urte osoan zehar. Elene Tristanek azaldu duenez, "talde berri honen helburua da errugbia kirol hau ezagutu nahi duten neskengana hurbiltzea, beraientzat kirola probatzea errazagoa izan dadin".

Gaur egun Txingudi Errugbi klubaren arazo nagusia senior mailan dago. Izan ere, neskak maila horretara iristen direnean talderik gabe aurkitzen dira. Txikiak direnean talde mistoetan jokatzeko aukera duten arren, senior mailan emakumeen eta gizonen taldeak banatu egiten dira. Beraz, senior mailan talde bat sortuz gero, emakumeek errugbian jokatzen jarraitzeko aukera izango dute, kirola utzi edo Gipuzkoan nesken taldeak dauzkaten taldeetara aldatu beharrik gabe, gaur egun gertatzen den moduan. Elene Tristánek azpimarratu duenez orokorrean neskak erakarri nahi dituzte Txingudi Errugbi Klubera, egun mutilekin alderatuta askoz gutxiago dira eta.

Beldurrik ez

Partiduak eta liga jokatzera iritsi aurretik, entrenamenduak eta kirola probatzeko lehen hartu-emana egitea funtsezkoa da. Elene Tristán kirolariak entrenamenduetan lan egiteko modua azaldu du bere adineko neskak errugbia probatzera animatu daitezen. "Entrenamendua beroketa ariketekin hasten dugu eta taldean inoiz errugbira jokatu ez duen neskarik bada, oinarrizko azalpen guztiak ematen zaizkio oinarrizko arauak ondo ulertzen dituen arte", adierazi du Txingudi Errugbi klubeko jokalariak.

Klubera jende berria hurbiltzen denean nolako harrera egiten dioten azaldu dute Elenek eta Aitanak. "Gure taldean norbait berria sartzen denean kontakturik gabeko paseak eginez hasten gara, hasieran minik edo beldurrik hartu ez dezaten", adierazi du Aitana Garridok. Elene Tristánek gaineratu duenez, "Errubia kontaktu handiko kirola da eta noizbait mina hartzea gertatu daiteke, baina ez beti". Behin oinarrizko nozioak barneratuta, txokeak egiten eta plakatzeak egiten hasten dira, beti jokalari berriak horretarako prest daudela ikusten dutenean.

Txingudi Errubi klubeko bi jokalariek aho batez onartu dute beldurra izan daitekeela neskak errugbian aritzera ez animatzeko arrazoietako bat. Elene Tristán bere esperientzia propioan oinarritu da hasierako beldur hori azaltzeko. Elenek adierazi duenez, "nire lagunak errugbia probatzera animatu nituen, baina beldur handia diote kontaktuari edo kirola egiten duten bitartean mina hartzeari".

Txingudiko kirolariek beste zailtasun bat aipatu dute errugbian dabilen neska kopuru txikia azaltzeko: Lurra. Aitana Garridok azaldu du lurra bustitzen denean eta lokatza sortzen denean jendeari nazka eman diezaiokeela. "Benetan errugbiaz gozatzen duen jendeak bakarrik daki zeinen dibertigarria den lokatzetan jolastea", azaldu du Garridok. Gainera, lokatza dagoenean lurzorua biguntzen denez mina hartzeko aukera gutxiago dago.

Hala ere, beldurra kentzeaz gain, minik ez hartzen ere ikasten da. "Kanpotik ikusita mina hartzen dugula iruditu dezakeen arren, askotan ez da hainbesterako", azaldu du Aitana Garridok. Gainera, Elene Tristánek gaineratu du errugbian jokatzerakoan badagoela babes bereziak erabiltzeko aukera: ahoko-babesa, sorbalda-babesa, zango-babesa eta kaskoa.

Bigarren aukera

Beraz, Txingudiko bi neskek aholku bera eman nahi diete oraindik errugbia probatzeko zalantzan dauden horiei: etortzea eta probatzea. Elene Tristánek azaldu du Plaiaundira hurbiltzea eta kirolari aukera bat ematea funtsezkoa iruditzen zaiola, nahiz eta gero ez gustatu eta berriro ez itzultzea erabaki. "Nik behin baino gehiagotan probatzea gomendatuko nuke, izan ere, lehenengo aldian agian ez zaizu gehiegi gustatzen ikusten duzuna, baina behin baino gehiagotan eginda pixkanaka erosoago sentituko baitzara", gehitu du Garridok.

Esandakoarekin neskaren bati errugbia probatzeko gogoa piztu bazaio asteartero 17:30etan Plaiaundiko instalakuntzetan aukera hori izango dute Txingudi Errugbi Klubari esker. Talde txiki batekin abiatuta ere, ikusteko dago etorkizunak zer daukan prest Txingudiko neska errugbi zaleentzat.

Gladiadoreen borrokei buruzko mitoak eta egiak

Dies Oiassonis

Gladiadoreen mosaikoa. Bad Kreuznach, Alemania

Aste gutxi igaro dira Oiasso museoak antolatutako Dies Oiassonis erromatar jaialdia ospatu genuenetik. Eskainitako jarduera deigarrienen artean, museoaren aurrean ikusi ahal izan genituen gladiadore borrokak eskaini ziren, oso harrera ona izan zutelarik ikusleen aldetik. Izan ere, erromatarrei izugarri gustatzen zitzaizkien borroka biziak, eta horiek gure gaurko oroimen kolektiboan daude, neurri handi batean Gladiator bezalako filmei esker, film horretan erromatarren eguneroko errealitate hori erakusten baitigute. Hala ere, horrelako filmek asko laguntzen dute gezur historikoak, estereotipoak eta desinformazioak zabaltzen ere, eta guk sinetsi egiten ditugu, gezurtatzen dituzten arte. Horregatik, aukera hau aprobetxatuko dugu gladiatura-ri buruz noizbait guztiok sinetsi ditugun zenbait mito desegiteko.

Lehenik eta behin, jakin behar dugu gladiadoreen arteko borrokak oso ezagunak zirela erromatarren artean, baina ez zirela, inondik ere, haien ikuskizun gogokoenak. Iturriek esaten digute venationes edo animalia ehizak gladiadoreen arteko borrokak bezain gogoko edo gogokoago zituztela; izan ere, ehizaldi horietan, erromatarrentzat hain exotikoak ziren piztiekin egiten zuten borroka (hipopotamoak, lehoiak, jirafak…). Baina, bi horien gainetik, antzinako erromatarren "futbola" zaldi lasterketak ziren. Horren erakusgarri da Koliseoak, adibidez, 50.000 ikusle sartzeko edukiera zuela eta hor egiten ziren borrokak oso ospetsuak zirela,; Zirku Maximoan, berriz, lasterketak egiten ziren lekuan, 150.000 pertsona inguru sartzen ziren, hau da, hiru aldiz gehiago. Lasterketak erromatarren dibertimendu nagusia izateaz gain, ekitaldi guzti hauek harreman sozialak garatu ahal izateko momentu ezin hobeak ere baziren.

Gladiadoreekin bueltatuz, ez da zuzena hauek guztiak esklabuak zirela pentsatzea, beren jatorria askotarikoa baitzen. Baziren esklabu zirenak, baina baita ere Erromako konkista gerretan preso hartutakoak (traziarrak, galiarrak, britaniarrak, germaniarrak, partoak…). Gatibu hauek gladiadore izanda aukera zuten bizia salbatzeko edo ohorez borrokatzen hiltzeko. Horrez gain, baziren ere preso erromatarrak, euren heriotza-zigorra antzokietan borrokatuz igarotzera edota gladiadore bihurtzera behartuak zirenak, bizia salbatzeko aukerarekin. Gainera, kasu askotan libertoek eta hiritarrek ere gladiadore gisa jarduten zuten, segur aski interes ekonomikoei jarraiki (agian zorrak kitatzeko edo familiari laguntzeko) edota benetako zaletasunagatik, azken batean, gladiatura-k ospea eta dirua zekarren eta. Horren adieralze, Komodo enperadorearen kasua dugu, gladiadore bezala zenbaitetan borrokatutakoa Koliseoan. Azkenik, datu historiko gutxi dauden arren, uste da emakume gladiadoreak ere bazirela.

Gladiadoreen arteko borrokei buruz pentsatu ohi da, halaber, mugarik gabeko hil arteko borroka mota bat zela, non garaitua exekutatu egiten zuten eta odola dibertsioaren sinonimo zen. Horrela agertzen dira Gladiator-en ere: protagonistak ekipamendu hobea duten etsai hordei aurre egin behar die. Errealitatea, ordea, oso bestelakoa da: egia esateko, gladiadoreen borrokak, munera gladiatoria esaten zieten, ez ziren hain odoltsuak, eta arau asko bete behar izaten zituzten, eta, horretarako, arbitro bat izaten zen hondarretan bertan. Gaur egungo boxeoarekin aldera dezakegu; kirol bortitza baina oso-oso arautua. Adibidez, bi aurkarietako bati arma erortzen bazitzaion, borrokaldia geldi zezakeen, arma jasotzeko. Erromatarrek ez zuten sarraskirik nahi, borroka ahalik eta berdinena izan zedin baizik: bikoteka borrokatzen ziren, eta gladiadore bakoitzak rol bat betetzen zuen. Gladiadore mota asko izaten ziren eta elkar osatzen zuten, batzuek ekipamendu astun eta motela edukitzen zuten, beste batzuek, berriz, ezpata motz eta ezkutu txikiak, baina askoz ere arinagoak. Hala, baldintza konpentsatuetan, aurkariak, amore emateko, hatz erakuslea altxatzen bazuen, besteak irabazten zuen borroka. Beste mito bat oso zabaldua da enperadoreak erabakitzen zuela borrokako galtzaileak bizirik jarraituko zuen edo hil egingo zuten, erpurua gora edo behera erakutsiz. Ez dugu horren frogarik, eta, gainera, borroka duina izan bazen, jokoen babesleak gladiadoreari barkatu egiten zion gehienetan, eta barkatzen ez bazion, ahalik eta azkarren eta ohorez hiltzen zuten.

Ikusten dugunez, batzuetan, horrelako estereotipoak erabiltzen dituzte filmetan. Eta zuk? Ezagutzen al zenuen mito horietakoren bat? Ikusi al zenituen Dies Oiassonis-eko gladiadoreak? Bestela, datorren urtera arte itxaron beharko duzu!

Aitor Cano
(praktiketako ikaslea Oiasso Museoan)

ESTUDIO FOTOGRAFÍA
GO VER™
Fernando Vergara
argazkilaria
Letxumborro hiribidea 100.2º
20305 Irun
943 840 113 - 647 930 484
www.fotogover.com
www.fotogoverbodas.com
info@fotogover.com

DUNBOA LH 1. ZIKLOA

Denbora-pasak

7 hitz: Udazkena



Hosto, euri, gaztaina, aterki, kalabaza, onddo, intxaur.

						8	4	3
3			9	8	4			
	6	2		7			5	
4		8	5	3			2	9
						7	8	4
5	4	7	2	6				
8		1			3			
					5			2

EUSKARAZ, IRUNEN BARRENA

Fernando eta Bikariyua

Bein juntzen Fernando Amezketarra erri batera. Eta ango bikariyo jaunak egintzion konbidatu bazkaltzera.

Juntzen Fernando bere andriakin bikariyo jaunan itxera.

Bazkaltzen asi baño leno, bikariyo jauna asi zen errezatzen:

<<Aitaren ta Semiaren eta Espiritu Santuaren izenian, Alaxen>>.

Orduan Fernandotarrak esantzun: << Aitaren ta Espiritu Santuaren izenian, Alaxen>>.

Eta bikariyo jaunak esantzion: << Eta zergatik ez duzu esaten Semia?>>.

- << Semia esaten duzu? Orain bertan etorriko da>>. Eta Fernando korrik juntzen kalera bere semian billa.

Hondarribiko Portuko Pedro A.I., 19 urteko mutilari jasoa. Hondarribiko R.I. osabari ikasi zion. Euskalkia zalantzazkoa izan daiteke, kontalaria ikasle gipuzkoarrekin bizi izan baita urte askoan eta gipuzkera ezagutzen baitu.

(El Bidasoa, 1960-VI-25)

Iturria: Nikolas Alzola Gerediaga Euskaraz, Irunen barrena

TOKI ALAI DBH 4

Iristerakoan abisatu

"Iristerakoan abisatu". Hau da amak bidali zidan mezua. Mugikorra poltsikoan sartu eta nire bidea jarraitu nuen, gaueko ordu bata jo zuenean elizako kanpaiak. 10 pausu eman eta gero, beti atzera begiratu behar nuen, segurtasun ttiki hori izateko. Begiratzerakoan, itzal bat ikusten nuen, eta horregatik azkarrago ibiltzen hasi nintzen. Baina itzal hau ni baino azkarragoa zen.

Beldurra, beldur handia nuen, hotzikarak sentitzen nituen. Mugikorra hartu behar nuen, amari esateko, agian, ez nintzela ailegatuko. Mugikorra hartu, baina urduritasunarekin erori zitzaidan. Ezin nintzen gelditu mugikorra hartzera, nire beldurrak ez ninduen uzten. Itzala gero eta gertuago zegoen. Etxeko giltzak atera nituen, defendatzeko, badaezpada. Dardarka nengoen, hotzikarak berriro hasi ziren. Laguntza behar nuen, baina ezin nuen oihu egin.

Begien aurretik nire bizitza guztia pasatzen ikusi nuen eta, orduan, korrika hasi nintzen. 200 metro besterik ez; 150 metro... 100 metro... itzala nire oinetan zegoen, 50 metro... 25 metro... portala ikusten nuen. Atzera begiratu gabe ireki nuen atea, eta etxean sartu nintzen. Seguru nengoen. Itzalak ez ninduen harrapatu. Hori uste nuen nik behintzat. Baina itzal hori beti hor dago, neska guztiengan dago, itzal hori ez da desagertzen inoiz.

Peio CHASCO VAN ACKER
DBH 4A
TOKI ALAI BHI

Gazteartean ekimenak eta Martindozenea Gaztelekuak ikasturte berriari hasiera eman diote

Gazteartean ekimenak eta Martindozenea Gaztelekuak ikasturte berriari energia berrituekin ekingo diote. Nobedadeen artean arloko arduradunek iragarri dute abenduan haurtxoko berri bat irekiko dela. Bestetik, Artia auzora zabalduko da Gaztelekuaren zerbitzua. Horretaz gain, Martindozenea Gaztelekuak gazte programazioa indartzen jarraituko du aurreko urteetan egin izan duen bezala.

Ikasturte berria nobedadeez beterik dator Irunen haurrentzat eta gazteentzat. Horrela, dagoeneko hirian martxan zeuden zerbitzuak eta espazioak indartzeaz gain, eremu berriak ere sortu dira. Santi Jiménez Gazteria arloko ordezkariak azaldu duenez, "Gazteria Arloak apustu argia egiten du umeen, eta gazte eta nerabeen alde".

Nerabeen zaintzari dagokionez, Gaztelekua handitzeaz gain, Martindozenean 15-18 urte bitarteko nerabeei zuzendutako programa indartzea izango da beste lan-ildo bat. Programa horretan, berariazko gune bat prestatu da, eta berariazko programa bat diseinatuko da, beren beharrak, proposamenak eta kezka partikularrak jasotzeko, eta gazteek zuzenean parte hartuko dute hura diseinatzen eta garatzen.

Konekta konektatzeko

Aurten Gazteria arloaren helburuetako bat da adin tarte gazteenekin jardutea, eta, horretarako, Konekta bitartekaritza zerbitzuaren aldeko apustua egin da. Zerbitzu horren bitartez gazteentzako jarduera interesgarriak ere antolatuko dira: musika jaialdiak, programa artistikoak, tailerrak, irteerak, etab. GazteARTEan Konekta 16 urtetik 25era bitarteko irundarrentzako zerbitzu bat da, eta bertan, bi bitartekari gaztek ekimenak sustatu eta garatzen dituzte berakiekin batera. Nahiz eta Konekta 2018az geroztik dagoen martxan, aurtengo urritik aurrera, nabarmen gehituko dira zerbitzu orduak, hartara jarduera eskari gero eta handiagoari erantzuteko.

AsexoraT

Azkenik, azpimarratu behar da arloak apustu sendoa egin duela AsexoraT Zerbitzuaren bidez heziketa sexuala eta afektiboa lantzeko. Ikasturte honetarako, Zerbitzuaren jarduera ildoak zabaldu dira, eta helburua da sexu eta afektibitate heziketa errespetuzkoa, gogoetatsua eta osasungarria sustatzea, funtsezkoa baita Irungo gazteen garapen pertsonalerako.

Aurrez aurre eta bitarteko digitalen bidez sexu eta afektibitate aholkularitza emateaz gain, sexualitateari buruzko topaketak, hitzaldiak eta sentsibilizazio jarduerak antolatuko dira, adin tarte bakoitzaren berezitasunak kontuan hartuta. Horrez gain, hezteko erantzukizuna duten pertsonei ere aholkularitza eskainiko zaie, eta sare sozialak alor afektibo eta sexualari dagokionez nola erabiltzen diren ere landuko da.

Haurrez ahaztu gabe

Haurrei dagokienez, eta iaz onetsitako Haurren eta Nerabeen I. Plana izango delarik jarduera esparrua, nabarmendu behar da HaurARTEan programa finkatu egin dela. Haurtzaroaren ikuspegitik lan egiteak eta hezteak dituen inplikazioak azpimarratzen dira HaurARTEan programaren bidez, eta aurreikusita dago 2022-2023 ikasturtean hainbat tailer egingo direla eta errespetuz haztearen inguruan dibulgazio materiala sortuko dela (podcasta, bideo pilulak).

Haurtxokoak bueltan

Bestetik, Haurtxokoen zerbitzua martxan egongo da berriro ere hasi berri den ikasturtean. Gogoratu behar da 4 ekipamendu dituela Haurtxokoen sareak: Katea, Txiki-Lab, Palmera Montero, Lapitze eta "El Rancho" - San Migel. Ikasturte hasierarekin batera Irungo Haurtxokoetan izena emateko epea ireki zen irailaren 7ra arte. 4 urtetik 11ra bitarteko haurrentzako zerbitzua da, eta proposamen sortzaile, estimulatzaile, hezigarri eta, batez ere, dibertigarriak eskaintzen ditu programak. Helburua da gizarte, kultura eta arte trebetasunen garapena bultzatzea. Horretarako, era guztietako tailerrak eta jarduerak egingo dira, baita ikasturte osoan Familia Ta Lagun programaren bidez familian partekatzeko proposamenak ere. Aurten, normaltasunean arituko dira erabat, eta txanda bakoitzean, 24 plaza egongo dira. Guztira, 288 plaza eskaintzen dira.

Martindozenea gazteen gotorleku

Irungo Martindozea Gaztelekuak irailaren 13an ireki zituen ateak berriro, ikasturte berriari hasiera emanez. Beti bezala, nerabeei eta gazteei zuzendutako programa bat jarriko da abian, tailer, jarduera, ekimen, eta abarrekin; haien interesetatik abiatuta, aisialdi hezitzaileko eskaintza zabala eskainiz. Espazioaren ordutegia astearte, asteazken eta ostegunetan 17:00etatik 20:00etara eta ostiral eta larunbatetan 17:00etatik 21:00etara izango da.

Ikasturte honetan ere adinaren arabera bereizitako bi gune eskainiko dira; ostiraletan eta larunbatetan, Gaztelekuko bigarren solairua 15 eta 18 urte bitarteko gazteentzat bakarrik gordeko da. Gune hau irailaren 16an jarriko da martxan, eta astebururo (ostiral eta larunbatetan) egongo da zabalik, 17:00etatik 21:00etara.

Irailaren 12an berriz, ate irekien jardunaldi bat egin zen Gaztelekuko espazioa, funtzionamendua edo langileak ezagutzeko interesa duten pertsona guztientzat; gurasoak, erantzukizun hezitzailea duten pertsonak eta abar.

Gainera, irailaren 21ean abian jarriko den "Tela Akrobatikoen" ikastaroan izena emateko epea zabalik dago. Ikastaroa asteazkenero egingo da ikasturte osoan zehar. Informazio gehiago nahi izanez gero, jarri harremanetan Gaztelekuarekin.

Gazteleku zerbitzuarekin harremanetan jartzeko, 943636926 telefonoa, 690706471 zenbakian WhatsAppa, gazteleku@irun.org posta zein gazteleku_irun Instagram kontua erabil daiteke.

irun
www.irun.org/igazte
gazte
informazioa

CBA Kultur Gunea
943 50 54 44
igazte@irun.org
607 77 11 73
www.irun.org/igazte

Irun Zuzenean

Datak: Irailaren 30etik urriaren 1era.

Non: Ficoban.

Prezioa: 30 euro.

Sarreren erosketa: Irungo Udalaren webgunean edo Irungo turismo bulegoan.

Oharra: Ateak 18:30ean irekiko dira.

Programa:
– Irailaren 30ean, ostirala: Iván Ferreiro, Maren, Ezpalak, Dupla eta Jornada B.

– Urriaren 1ean, larunbatean: Zahara, Ginebras, Maika Makovski, Malforta eta Impacto Vudu.

IRUN ZUZENEAN FESTIBALA

Liburutegiaren urte berria

CBA Liburutegia irailaren 12tik aurrera ohiko ordutegira itzultzen da.

Astelehenetik ostiralera 9:00etatik 20:00etara eskainiko du zerbitzua.

Larunbatetan, berriz, 9:00etatik 13:00etara.

GazteARTEan ikerketa beka

GazteARTEan Irungo Udaleko Gazteria Zerbitzuak GazteARTEan ikerketa-bekaren laugarren edizioa aurkeztu du. Haurren, nerabeen eta gazteen alorreko gaiak ikertzeko beka bat da, eta 35 urtetik beherako gazteei zuzendua dago.

Bekaren xedeen artean dauden ekimen sortu berriak autonomoki garatu daitezen laguntzea, ikertze lana bultzatzea eta akuilatzea gazteen artean, eta, aldi berean, Udalaren eta gazteen artean lan egiteko lerro berri bat irekitzea.

Ikerketa lanak 8.000 euroko aurrekontua izango du, eta gehienez ere 8 hilabetean egingo da, esleitzen den egunetik kontatzen hasita. Azken emaitza edo entregagarria hainbat formatu/proposamenetan aurkez daiteke: proiektua, prozesua edo ekintza (dibulgaziozko materiala, lankidetza proiektuak eta/edo parte-hartzaileak, etab.).

Bereziki interesgarriak dira ikerketa/ekintza garatzeko momentuan Irungo gazteen parte-hartze zuzen eta aktiboa daukaten proposamenak.

Ezarritako metodologiaren originaltasuna eta berrikuntza baloratuko dira, bai eta hausnarketarako prozesuak integratzea ere, baldin eta gazteen esperimentazioa eta ikasketa bateratua ahalbidetzen badituzte.

Epea: 2022ko urriaren 24a

Zenbatekoa: 8.000 €

KZ Guneko hitzaldiak

KZ Gunean astero antolatzen dituzten hitzaldietan parte hartu ahal izango duzu, betiere IKTei buruzko gai berri bati buruz. Hitzaldiek 30 minutuko iraupena dute eta euskaraz zein gaztelaniaz egiten dira.

Hitzaldietan parte hartzeko Interneteko konexioa izatea da baldintzetako bat. Hitzaldiak Youtubeko KZguneaTIC kanalaren bidez egiten dira eta txataren bidez parte hartu ahal izango duzu. Amaitutakoan, grabatuta geratuko da, geroratuta ere ikusi ahal izateko.

Youtubeko ekitaldirako sarrera guztiz librea da eta ez da beharrezkoa aldez aurretik izena ematea.

KZguneaTIC kanalean harpidetzen bazara eta jakinarazpenak aktibatzen badituzu, une oro jakingo duzu noiz hasiko diren, hurrengo hitzaldiak ez galtzeko.

kz gunea

Lan eskaintza Irungo Udalean

29 urte edo gutxiago baduzu eta zure karrera amaitu baduzu, jakin ezazu Irungo Udala zu bezalako pertsona baten bila dabilela.

Eskaintza gazteak kontratatzeko FSE Plus programaren barruan dago eta Gazteentzako Berme Sisteman izena emanda egotea beharrezkoa da. Praktikaldiko kontratu interesgarria da, urtebetekoa.

Eskaintza hau da: HaurARTEan programako teknikari bat.
Lanpostu horretan egin beharreko lana zera izango da, HaurARTEan programa garatzen laguntzea, eta komunikazio eta harreman estrategia diseinatzeko eta abian jartzeko lanak garatzea. Helburua: haurrak eta nerabeak subjektu politiko aktibo gisa onartzeari buruzko sentsibilizazio eta informazioa zabaltzea.

Baldintzak jakiteko edo izena eman nahi baduzu, informazioa Irungo Udalean aurkituko duzu.



IRAILAREN

16an

Kontzertua

Zer: "1522: Albada Aintzinako Musika" kontzertua, San Martzialeko Batailaren 5. mendeurrena omentzeko.

Non: San Martzialeko ermitan.

Ordua: 20:00etan.

Sarrera: Doan.

Hizkuntza: Euskaraz.

17an

Musika

Zer: Nacho Vegas abeslari asturiarraren kontzertua, Estatuko zein Latinoamerikako herri-musiken esparruan gehien errespetatzen den ahotsetako bat.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 19:00etan.

Prezioa: 15 euro.

Sarrerak: Internet bidez, Irungo turismo bulegoan edo antzokiko leihatilan emanaldiaren egunean bertan.

23an

Kontzertua

Zer: "1522: Euskalbaroque Ensemble" ikuskizuna, San Martzialeko Batailaren 5. mendeurrena omentzeko.

Non: Ama Xantalen ermitaren kanpoaldean.

Ordua: 20:00etan.

Sarrera: Doan.

Oharra: Eguraldi txarra eginez gero, Amaia kultur zentroan egingo da.

24ean

Magia ikuskizuna

Zer: Magia ikuskizuna Roberto Vara, Peio Rivas, Paco Agrado, Ramo y Alegría, Jonio eta Santa magialarien eskutik.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 19:00etan.

Prezioa: 8 euro.

Sarrerak: Internet bidez, Irungo turismo bulegoan edo antzokiko leihatilan emanaldiaren egunean bertan.

24ean

Dan-tz point

Zer: Ekintza artistiko honen bitartez leku enblematikoak balioestea bilatzen da musika elektronikoko eta abangoardiako musika saioen bidez.

Non: Ama Xantalen ermitaren kanpoaldean.

Ordua: 19:30ean.

Sarrera: Doan.

25ean

Girabira

Zer: Dantzari lotutako tailerrak eta ikuskizuna.

Non: Gain Gainean parkean.

Ordua: 12:00etatik aurrera.

Prezioa: Doan.

Denbora-pasen emaitzak



7	8	4	3	2	6	9	1	5
2	9	6	1	5	7	8	4	3
3	1	5	9	8	4	2	6	7
9	6	2	4	7	8	3	5	1
4	7	8	5	3	1	6	2	9
1	5	3	6	9	2	7	8	4
5	4	7	2	6	9	1	3	8
8	2	1	7	4	3	5	9	6
6	3	9	8	1	5	4	7	2

LOS MUÑECOS DE LA TARTA

VI Ezkontza azoka

Urriak 15 eta 16

FICOBA erakustazokan

PARKING DOAN!

www.losmunecosdelatarta.es

Kolaboratzaileak:

FICOBA

Ayuntamiento Udala
irun